

Euskararen erabilera eta transmisioa

Olabide ikastolako
ikasle ohien adibidea

2004

VITORIA-GASTEIZ



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Euskararen erabilera eta transmisioa

Olabide ikastolako
(Vitoria-Gasteiz)
ikasle ohien adibidea

2004ko IRAILA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2005

Euskararen erabilera eta transmisioa: Olabide ikastolako (Vitoria-Gasteiz) ikasle ohien adibidea : 2004ko iraila. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2005

or. ; cm.

Badu, gainera, atari eta orrialdekatze propioa behekoz gora gaztelaniaz: “Uso y transmisión del euskera...”

ISBN 84-457-2235-2

1. Euskara-Vitoria-Gasteiz-Gizarte ikuspuntua. I. Euskadi. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. II. Izenburua (gaztelania)

809.169(460.156 Vitoria-Gasteiz):316.7

Argitaraldia:	1.a 2005eko otsailean
Ale-kopurua:	1.000 ale
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Internet:	www.euskadi.net
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkia:	Mikel Arrazola, “Argazki” artxiboa, Eusko Jaurlaritza
Fotokonposizioa:	Composiciones Rali, S.A. Particular de Costa 8-10, 7. - 48010 BILBAO
Inprimatzea:	Estudios Gráficos Zure, S.A. Carretera Lutxana-Asua, 24-A Erandio Goikoa (Bizkaia)
ISBN:	84-457-2235-2
Lege-gordailua:	BI-224-05

<u>Azterlanaren aurkezpena</u>	7
<u>1 Aztertutako unibertsoaren deskribapena</u>	11
1.1 Ezaugarri sozio-demografikoak	11
1.2 Hizkuntza-gaitasuna	14
1.3 Euskarari buruzko iritziak	22
<u>2 Euskararen erabilera familiaren esparruan</u>	25
2.1 Euskararen erabilera etxean	25
2.2 Euskararen erabilera familiakideekin	30
<u>3 Euskararen erabilera familia esparrutik kanpo</u>	35
3.1 Euskararen erabilera lagunartean	35
3.2 Euskararen erabilera lankideekin	38
3.3 Euskararen erabilera beste zenbait esparrutan	42
<u>4 Euskararen erabileraren tipologia hainbat esparrutan</u>	45
<u>5 Euskararen familia-transmisioa</u>	49
<u>Laburpena eta ondorioak</u>	55

azterlanaren aurkezpena

Lan honen helburua zera da: euskararen erabilera eta familia-transmisioa aztertzea, ingurune nagusiki erdaldunean bizi eta seme-alaba txikiak dituzten artean. Horien ezaugarri nagusietako bat da etxeko lehen hizkuntza gaztelania izan zutela, eta euskaraz ikasi zutela batez ere hezkuntza-sistemari esker.

Aztertu beharreko euskaldun horien ingurunea ahalik eta homogeneousena izan zedin, eta informazio bilketa ahalik eta errazen egitearren, erabaki genuen azterketa Vitoria-Gasteizen egitea; 2001eko Erroldaren arabera, hiri horretan biztanleen %15 ziren euskaldun.

Halako ehunekoak izanik, zail samarra da euskaldunak “aurkitzea”; eta are zailagoa hautaketa-sistemak ausazkoa izan behar badu, eta laginak, berriz, handi samarra. Baina bi ezaugarri horiek bete behar genituen, baldin eta lagin adierazgarria, ehunekoari dagokionez, lortu nahi bagenuen. Hala bada, hainbat aukera aztertu ondoren, erabaki genuen Olabide Ikastolako ikasle ohien artean egitea azterketa, eta, horretarako, ikastetxeko zuzendaritzaren laguntza izan genuen.

Honakoak dira aukera horrek eskaintzen dizkigun abantailak:

- Olabide Ikastolak badu ikasle ohien fitxategia, non agertzen baitira helbidea eta telefonoa. Fitxategia osatu eta eguneratu egin behar izan genuen, baina abiapuntu egokia zen.
- Vitoria-Gasteizen, euskaraz irakasten lehena izan zen Olabide Ikastola; hori dela eta, fitxategian badira 41 urte arteko lagunak, eta guk aztertu nahi genuen 26 urtetik 41 urtera artekoen unibertsoa.
- Vitoria-Gasteizen eta inguruetan, adin tarte horretako (26-41) Olabide Ikastolako 855 lagun bizi dira, gure datuen arabera; beraz, lagin batera jo behar izan gabe, bagenuen aukera unibertso osoa aztertzeko.
- Azkenik, aurreikusten genuen talde horretako gutxiak egingo ziotela uko inkesta betetzeari, eta halaxe gertatu da.

Baina bada, hala ere, balizko eragozpen bat: ez dakigu Olabide Ikastolako ikasle ohiek zenbateraino erakusten duten Vitoria-Gasteizko adin bereko euskaldun guztien errealitatea. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, 2001ean, Euskal Herriko III. Inkesta Soziolinguistikoa egin zuen. Ikerketa horretan 100 inkesta baino ez ziren egin, Vitoria-Gasteizen, 26-41 urtekoen artean, eta adin horretako gasteiztar euskaldunen profila erakusten du, gutxi gorabehera.

Profil hori Olabide ikastolako ikasle ohien profilarekin alderatuz gero, honakoa ikusten da:

- Sexu, ikasketa-maila eta jardueraren araberrako banaketa antzekoa da bi taldeetan.
- Olabide Ikastolako ikasle ohien artean gehiago dira euskara, bakarrik edo gaztelaniarekin batera, lehen hizkuntza izan zutenak, baina ez dago alderik, bi taldeen artean, hizkuntza-gaitasunari dagokionez.
- 26 eta 41 urte arteko Gasteizko euskaldunen herenek baino gehiagok bere kabuz ikasi zuten euskaraz (ikastaro trinkoak, gau-eskolak...).
- Euskararekiko interesaren eta hizkuntz identitatearen alorretan, ez dago ia alderik bi taldeen artean.
- Etxeko euskaldunen proportzioa antzekoa da bi taldeetan; hala ere, Olabide Ikastolako ikasle ohi gehiagok dituzte guraso eta, batez ere, neba-arreba, euskaldunak.
- Olabide ikastolako ikasle ohiek lagun euskaldun gehiago dituzte, baina lankide euskaldun gutxiago, beste taldekoek baino.
- Eta, jakina, esparru formaletako (dendak, bankuak/aurrezki kutxak, osasun zerbitzuak, eta udal zerbitzuak) euskaldunei dagokionez, ez da alderik bi taldeen artean.

Beraz, bi taldeek dituzte antzeko ezaugarri soziolinguistikoak; alderik handiena familian dago, izan ere Olabide Ikastolako ikasle ohi gehiagok daukate guraso, eta, bereziki, neba-arreba, euskaldunak. Horiek horrela, ikuspegi soziolinguistikotik begiratuta, esan liteke Olabide Ikastolako ikasle ohien taldeak erakusten duela, neurri handi batean, Vitoria-Gasteizko 26-41 urte bitarteko euskaldunen taldea, nahiz eta familia (guraso eta neba-arrebak) euskaldunagoak dituzten.

Edonola ere, Olabide Ikastolako ikasleen artean bada talde bat, %12, gaur egun euskaraz zertxobait besterik hitz egiten ez duena. Beste era batera esanda, elebidun hartzailak dira. Baina talde hori ere interesgarria de-

nez, azterlanera bildu dugu. Horrek arindu egin du Olabide Ikastolako ikasle ohiek familian duten abantaila, arestian aipatu duguna.

Ondorio gisa, azterlan honen helburuei dagokionez, hau da, euskararen erabilera eta familia-transmisioari dagokionez, Olabideko 26-41 urte arteko ikasle ohien artean lortutako emaitzak estrapolatu egin daitezke Vitoria-Gasteizko adin bereko euskaldunen taldera. Are gehiago, emaitza horiek balio dezakete, eta akats handirik ez litzateke egongo, 1. eremu soziolinguistikoko (euskaldunak %20 baino gutxiago diren eremuak) adin bereko euskaldunen talderako ere.

Aztertutako unibertsoa osatzen dute Gasteizen edo inguruetan bizi diren Olabide Ikastolako 26-41 urte bitarteko 855 ikasle ohik. Ekainean bildu genuen informazioa; elkarrizketa egin genien telefonoz, eta galdera sorta itxia eta egituratua zen. Abiapuntuko unibertsoa osatzen zuten 855 lagunetatik, 772ri (%90,3) elkarrizketa egitea lortu genuen; 11 oporretan zeuden, eta gainerako 72ei dagokionez, batzuek uko egin zioten galdera-sorta erantzuteari, eta beste batzuen gurasoek ez ziguten harremanetan jartzeko biderik eskaini. Beraz, ukatu dutenen kopurua txikia izan da, eta horien arteko askori dagokionez, aleatorioa; lortutako emaitzek, hortaz, ez dute hutsune handirik.

Ondorengo orrialdeetan aurkeztuko dugun txostenak honako bost kapitulu hauek ditu:

1. Lehenengo eta behin, aztertutako unibertsoaren deskribapena egingo dugu, ezaugarri sozio-demografikoen, hizkuntza-gaitasunaren eta euskarari buruzko zenbait iritziren arabera.
2. Ondoren, euskararen erabilera etxean aztertuko dugu, eta elkarrizketatutako pertsonaren euskararen erabilera etxeko gainerako kideekin, haren etxean bizi edo ez.
3. Etxeko esparruko euskararen erabilera aztertu ondoren, aztergaia izango da euskararen erabilera lagunekin, lankideekin eta bestelako esparru formalagotan (dendak, bankuak/aurrezki kutxak, osasun zerbitzuak eta udal-zerbitzuak).
4. Euskararen erabilera esparru guztietan kontuan hartuta, euskararen osoko erabileraren tipologia egingo dugu.
5. Euskararen erabilera zein den zehaztuta, seme-alabak dituzten elkarriketatutako familia-transmisioa aztertuko dugu.

Azkenik, emaitzarik garrantzitsuenak eta lortutako ondorioak laburbilduko ditugu.

Emaitzak analizatuko ditugu bai unibertso osoaren arabera, eta bai sexuaren, adinaren, ikasketa-mailaren, hizkuntza-gaitasunaren, lehen hizkuntzaren eta euskaraz ikasi duen urte-kopuruaren arabera taldeak eginda ere.

Horrez gain, zenbait kapitulutan, analisirako beste aldagai batzuk ere erabiliko ditugu: adibidez, euskararen erabilera etxean zein den aztertzerakoan, etxean bizi den lagun-kopurua; esparru bakoitzeko erabilera aztertzerakoan, berriz, euskaldunen proportzioa sarean; edo, euskararen familia-transmisioa aztertzerakoan, esaterako, kontuan hartuko dugu bikotekide bien hizkuntza-gaitasuna.

1.1 Ezaugarri sozio-demografikoak

Ikasketa-maila eta lan-egoera

Ikasketa-maila altua da Olabide Ikastolako 26-41 urte bitarteko ikasle ohien ezaugarri sozio-demografikorik adierazgarriena; azterlanaren aurkezpenean adierazi dugunez, berezitasun hori gertatzen da Vitoria-Gasteizko adin bereko euskaldunen taldean ere.

Erdiek baino gehiagok (%53) goi-mailako ikasketak egin dituzte, eta ia bostenek (%18), gradu ertaineko goi-mailako ikasketak; beraz, ia hiru laurdunek (%71) goi-mailako ikasketak egin dituzte. Gainerakoetan, %15ek BBB-UBI ikasi zuten, %8k LH2, %3k LH1, eta %2k OHO.

Ondoko taulan ikustenenez, ikasketa-maila handiagoa da emakumeen artean, eta ez da ia alderik adinaren arabera.

Elkarrizketatutakoen adina dela eta, 26-41 urte bitartean, gehienak lanean ari dira (%92), bai beren kontura (%12), edota beste inoren kontura (%80).

IKASKETA MAILA ETA LAN EGOERA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA						
% Bertikalak	GUZTIRA	Gizonez- koa	Emaku- mezkoa	36-41 urte	31-35 urte	26-30 urte
IKASKETAK:						
Goi-mailakoak	53	50	56	52	56	51
Erdi goi-mailakoak	18	14	23	16	18	21
BBB-UBI	15	20	10	15	12	19
LH2	8	11	6	9	8	8
LH1	3	3	3	4	4	1
OHO	2	2	2	4	2	1
LAN EGOERA:						
Bere kontura egiten du lan	12	16	9	19	11	9
Besteren kontura egiten du	80	78	82	74	84	79
Langabezian	5	4	5	4	5	5
Ikaslea	2	2	3	0	0	7
Etxeko lanak	1	0	2	3	0	0

Langabezian ere badira (%5); beste %2k ikasten dihardute, eta, azkenik, %1ek etxeko lanak egiten ditu.

Bi sexuen eta hiru adin-taldean arabera aztertuta, gehienak lanean ari dira, eta ia bera da langabezian daudenen ehunekoa. Ikasten ari diren gutxi horiek 26-30 urte bitarteko gazteak dira, eta etxeko lanetan dihardutenak, berriz, emakume zaharrenean (36-41) taldekoak dira.

Egoera zibila eta seme-alabak

Egoera zibilar dagokionez, %41 ezkongabea da, %57 ezkondua dago, edo bikotekidearekin bizi da, eta %1 dibortziatuta dago, baina ehunekoak aldatu egiten dira sexua zein den, eta, batez ere, adinaren arabera. Hala bada, gizonezkoen artean txikiagoa da ezkondua edo bikotekidearekin bizi direnen ehunekoa (%54) emakumeen artean baino (%61), eta adinari erreparatuta, zenbat eta zaharragoak izan, ehunekoak gora egiten du: 26-30 urtekoen %30, 31-35 urtekoen %69 eta 36-41 urtekoen %78.

Seme-alabak dituztenak ez dira kopuru osoaren herenera ere iristen (%31); aldagai honetan ere, ehunekoa aldatu egiten da sexua bata ala beste izan: gizonezkoen %28 eta emakumezkoen %33, eta are gehiago aldatzen da adina kontuan hartuz gero: 26-30 urte bitartekoak %5, 31-35 urte artekoak %35, eta 36-41 urte bitarteko taldean, berriz, %59.

Seme-alabak dituztenen artean, erdiek baino gehiagok bakarrik daukate, eta gainerakoetan, gehienek bi daukate. Hiru laurdenen seme-alabak 6 urte baino gazteagoak dira, eta gehien-gehienek, 10 urtetik beherako seme-alabak dituzte.

EGOERA ZIBILA ETA SEME-ALABAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA						
% Bertikalak	GUZTIRA	Gizonez- koa	Emaku- mezkua	36-41 urte	31-35 urte	26-30 urte
EGOERA ZIBILA:						
Ezkongabea	41	45	37	20	29	69
Ezkondua / Bikotean	57	54	61	78	69	30
Dibortziatua	1	1	2	2	2	0
SEME-ALABAK:						
Ez du	69	72	67	41	65	95
Badu	31	28	33	59	35	5


Etxeko bizikideak

Etxeko bizikideak nor diren (Norekin bizi da elkarrizketatua?) erakusten digun aldagaia –zerikusia duena egoera zibilarekin, adinarekin eta

seme-alabekin– oso garrantzitsua da euskararen erabilera etxean zein den aztertzeko.

Aldagaia bost mailatan dago banatuta, baina horietatik hiruk garrantzi handiagoa dute kopuruari dagokionez, izan ere %30 inguruko ehunekoak erakusten dituzte. Honakoak dira: gurasoekin bizi direnak (%29), bikotekidearekin bizi direnak (%28), eta bikotekidearekin eta seme-alabekin bizi direnak (%31). Gainerakoak bakarrik bizi dira (%11), edo neba-arrebeekin edo beste batzuekin (%2).

Hala ere, etxearen osaketa nabarmen aldatzen da adinaren arabera: gazteenen artean, erdiak baino gehiago (%56) gurasoekin bizi dira; tarterko adinekoen ia hiru laurdenak bikotekidearekin bizi dira (%70), eta horien %35k seme-alabak dituzte; zaharreneen taldean, hiru laurdenak baino gehiago bikotekidearekin bizi dira, eta horietatik %59k seme-alabak dauzkate.



Etxearen osaketa ere aldatzen da sexuaren arabera, baina askoz ere gutxiago. Gizonezkoen artean zertxobait handiagoa da gurasoekin bizi direnen ehunekoa (%33), emakumezkoen artean baino (%25); aldiz, gizonezko gutxiago (%54) bizi da bikotekidearekin (seme-alabak eduki edo ez), emakume baino (%63).

Azterlan honetan, garrantzitsua da etxeko bizikideak nor diren jakitea, eta zerikusia du belaunaldiekin, honako arrazoiengatik:

- gurasoekin bizi direnak aurreko belaunaldikoekin bizi dira, eta etxean bizi diren neba-arrebak badituzte, baita belaunaldi berekoekin ere,
- bikotekidearekin bizi direnak beren belaunaldikoekin bizi dira,
- eta bikotekidearekin eta beren seme-alabekin bizi direnak, berriz, beren belaunaldikoekin eta ondorengo belaunaldikoekin bizi dira,

eta aurrerago ikusiko dugunez, nabarmen aldatzen da euskaldun kopuruaren ehunekoa elkarrizketatutakoekin bizi diren hiru belaunaldien artean.

NOREKIN BIZI DA ELKARRIZKETATUA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA						
% Bertikalak	GUZTIRA	Gizonez- koa	Emaku- mezkoa	36-41 urte	31-35 urte	26-30 urte
Gurasoekin	29	33	25	9	18	56
Bakarrik	11	11	11	11	10	11
Neba-arrebekin / beste batzuekin	2	2	1	1	2	3
Bikotekidearekin	28	26	30	21	35	25
Bikote eta seme-alabekin	31	28	33	59	35	5

1.2 Hizkuntza-gaitasuna


Lehen hizkuntza

Olabide Ikastolako ikasle ohien bi herenek (%65) gaztelania izan zuten lehen hizkuntza; beraz, Ikastolan ikasi zuten euskara. Gainerakoek euskara izan zuten lehen hizkuntza (%19), edo euskara eta gaztelania (%17).

Lehen hizkuntza gaztelania izan zutenen artean, ehunekoa ez da aldatzen sexuaren, adinaren edo ikasketa-mailaren arabera, %65 ingurukoa baita kasu guztietan.

Dena dela, lehen hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan zutenen ehunekoa aldatu egiten da adinaren aldagaia kontuan hartuz gero. Euskal Herrian ikusten den joera nagusiarekin bat dator, geroz eta gehiago transmititzen baitira bi hizkuntzak. Hala bada, 36-41 urte bitartekoen %23k izan zuten euskara lehen hizkuntza, eta %13k biak; gazteen artean, baina,

hau da, 26-30 urte bitartekoen artean, %16k euskara izan zuten lehen hizkuntza, eta %19k biak.



LEHEN HIZKUNTZA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

% Bertikalak	GUZTIRA	Gizonez- koa	Emaku- mezkoa	36-41 urte	31-35 urte	26-30 urte
Gaztelania	65	64	65	64	64	65
Euskara eta gaztelania	17	17	16	13	17	19
Euskara	19	19	18	23	19	16

Euskaraz ikasten aritu ziren urte-kopurua


Euskaraz ikasi duten urte kopuruari dagokionez, ia bat datoz bi taldeak, hau da, alde batetik, lehen hizkuntza euskara zutenak, eta, bestetik, euskara eta gaztelania izan dutenak lehen hizkuntza. Beraz, ez du zentzurik bi taldeak bereizita aztertzea, eta euskaraz ikasi duten urteak aztertzeko, unibertso osoa hartuko dugu aintzat.

Gutxi batzuek (%4) euskaraz ikasi zuten OHOk 4. mailara arte (7 urtez, gutxi gorabehera); laurdenak (%24), OHO osorik (11 urtez); erdiek baino zerbait gehiagok (%54), BBB edo LH2 (14 urtez); eta gainerakoek (%19), maila ertaineko edo goi-mailako ikasketak (zati bat edo oso-osorik) (16 urtez edo gehiagoz).

Batez beste, gizonezkoek urteren bat gutxiago ikasi dute euskaraz emakumezkoek baino. Adibidez, gizonezkoen %33k 11 urtez ikasi zuten gehienez euskaraz (OHO), eta emakumezkoen %21ek egin zuen hori; baina gizonezkoen %12k baino ez zuten ikasi euskaraz 16 urtez edo gehiagoz (goi-mailako edo erdi-mailako ikasketak), eta emakumeen artean, berriz, %26k. Alde hori azaltzeko, kontuan hartu behar da emakumeen ikasketa maila altuagoa dela, baina beste alde batetik, gizonezkoek ezaugarri teknikoak dituzten ikasketak egiten dituzte, eta euskarak toki txikiagoa izan du ikasketa horietan.

Adinaren arabera ere antzematen dira aldeak, baina txikiagoak. Zaharrenek, 36-41 urte bitartekoek, gainerakoek baino urteren bat edo beste gutxiago ikasi dute euskaraz, izan ere %37k 11 urtez ikasi zuten euskaraz (OHO) gehienez ere, eta gainerakoek %24k; bestalde, zaharrenek %16k ikasi zuten euskaraz 16 urtez edo gehiagoz, eta beste taldeetan, aldiz, %20k.

EUSKARAZ IKASITAKO URTE-KOPURUA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA						
% Bertikalak	GUZTIRA	Gizonez- koa	Emaku- mezkoa	36-41 urte	31-35 urte	26-30 urte
7 urte (OHO 4)	4	4	3	10	1	2
11 urte (OHO)	24	29	18	27	21	24
14 urte (BBB-LH2)	54	56	52	47	58	54
16 urte (Erdi goi-mailakoak)	12	8	15	10	13	11
19 urte (Goi-mailakoak)	7	4	11	6	7	9




Logikoa denez, alderik handiena gertatzen da ikasketa-mailaren arabera; argi ikusten da hori hurrengo grafikoan. Goi-mailako (%91) edo erdi goi-mailako ikasketak dituztenen gehienek (%79) 14 urtez ikasi zuten, gutxienez, euskaraz (BBB), eta OHO edo LH1 Ikasi zutenek, ordea, 11 urtez aritu ziren, gehienez ere, euskaraz ikasten (OHO).

Azpimarratu behar da goi-mailako ikasketak dituztenen %14k euskara hutsez egin zituztela ikasketak, eta beste %16k, ikasketa horien zati bat (mailak edo ikasgaiak).

Hizkuntza-gaitasuna

Olabide Ikastolako ikasle ohi ia guztiek (%99) ulertzen dute ondo, edo nahikoa ondo, euskaraz, eta gehienek hitz egin (%88), irakurri (%90) edo idazten (%83) dute. Beraz, badira batzuk, eta ez horren gutxi, zertxobait besterik hitz egiten (%12), irakurtzen (%10) edo idazten (%17) ez dutenak.



Harrigarri samarra dirudi Olabide Ikastolako ikasle ohien %12 elebidun hartzaileak izatea (euskaraz zertxobait hitz egiten dute, nahiz eta ondo edo nahiko ondo ulertu); izan ere, gutxienez OHOk 8. mailara arte euskaraz ikasi zuten (hasieran, ikastolan, zenbait ikasgai gaztelaniaz ikasi zituzten, ez baitzegoen testu libururik euskaraz), ez baititugu unibertsoan sartu euskaraz

ikasten urte gutxitan aritu zirenak, gaur egun zertxobait besterik hitz egiten ez dutenak euskaraz. Baina elebidun hartzaile horiek ez dute euskara ia erabili, eta galdu egin dute ikasi zutenaren zati bat.

Edonola ere, maila txukuneko elebidun hartzaileak dira; gainerako elebidun hartzaile gehienek baino ezagutza-maila handiagoa daukate. Adibide bat jartzearren, laurdenek euskaraz erantzun diote inkestari; erdiek ondo edo nahikoa ondo irakurtzen dute euskaraz; eta laurdenek idatzi ere idazten dute.

Bestalde, harrigarria izan liteke aztertutako talde guztietan azaltzea elebidun hartzaileak, nahiz eta proportzioa aldatu egiten den talde batetik bestera. Hona hemen datu batzuk:

- gizonetzko elebidun hartzaile gehiago dago (%15), emakumezko baino (%10);
- adinez zenbat eta zaharragoak izan, elebidun hartzaile gehiago. 26-30 urtekoen %10, 31-35 urtekoen %12 eta 36-41 urtekoen %16;
- ikasketa-maila handiagoa bada, gutxiago dira elebidun hartzaileak. OHO edo LH1 ikasi zutenen artean, %30; BBB edo LH2 ikasi zutenen artean, %19, eta goi-mailako edo erdi goi-mailako ikasketak dituztenen artean, %9;
- lehen hizkuntza gaztelania eduki zutenen artean elebidun hartzaile gehiago dago (%16), baina badira lehen hizkuntzak gaztelania eta euskara eduki zituztenen artean ere (%8), eta lehen hizkuntza euskara besterik eduki ez zutenen artean ere bai (%4);
- alderik handiena, baina, euskaraz ikasi zuten urteen araberakoa da. Euskaraz 11 urtez (OHO) ikasi zutenen %22 dira elebidun hartzaileak; 14 urtez ikasi zutenen (BBB-LH2) artean, %11; eta, azkenik, 16 urtez ikasi zutenen (erdi mailako edo goi-mailako ikasketak) %1.

Aurrez ikus litekeenez, urteak joan ahala handitu egingo da elebidun hartzaileen ehunekoa, adinarekin batera haziz baitoa; beraz, baliteke %15etik gorakoa izatera iristea. Ez da ahaztu behar euskaldunen belaunaldi horren ingurunea, bai familia zein gizarte ingurunea, erdalduna dela batez ere, eta horrek eragotzi egiten du euskara erabiltzea. Dena dela, elebidun hartzaile horietako batzuek galdutako euskara berreskura lezakete, seme-alabekin erabiliz gero; erabilera aztertu dugunean ikusi dugunez, seme-alabak dituztenen erdiek baino gehiagok erabiltzen dute euskara, gaztelaniarekin batera, seme-alabekiko harremanetan.

Zertxobait irakurtzen (%10) eta idazten (%17) dutenei dagokienez, esan behar dugu zertxobait hitz egiten dutenen antzeko portzentajeak dituztela talde guztietan, hurrengo taulan ikusten denez.

ZERTXOBAIT HITZ EGIN, IRAKURRI EDO IDAZTEN DUTENEN PORTZENTAJEA			
% Bertikalak	Zertxobait hitz egiten dute	Zertxobait irakurtzen dute	Zertxobait idazten dute
GUZTIRA:	12	10	17
SEXUA:			
Gizonezkoa	15	12	22
Emakumezkoa	10	8	13
ADINA:			
36tik 41ra	16	16	23
31tik 35era	12	9	18
26tik 30era	10	7	12
IKASKETAK:			
OHO-LH1	30	25	35
BBB-LH2	20	19	28
Erdi goi-mailakoak	9	9	15
Goi-mailakoak	9	5	11
LEHEN HIZKUNTZA:			
Gaztelania	16	12	21
Euskara eta gaztelania	8	9	14
Euskara	4	5	7
IKASKETAK EUSKARAZ:			
11 urtez edo gutxiagoz (OHO)	22	20	30
14 urtez (BBB-LH2)	11	8	17
16 urtez edo gehiagoz (Erdi/Goi-mailakoak)	1	1	1

Hizkuntza-gaitasun erlatiboa: elebidun-motak


Bi hizkuntzetatik zeinetan hitz egiten duzu errazen? galderari emandako erantzunei esker, honako sailkapena egin dugu elebidun-motaren arabera:

- Gutxi-gutxi batzuk (%3) elebidunak dira, eta euskara da nagusi (euskal elebiduna).
- Laurdenak (%25) elebidun orekatuak dira, erraztasun bera baitute euskaraz eta gaztelaniaz aritzeko.
- Erdiak baino gehiago (%59) elebidunak dira eta gaztelania da nagusi (erdal elebiduna).
- Gainerakoak (%12) elebidun hartzailleak dira.

Elebitasun-motaren araberako banaketa egiterakoan, alderik handiena agertzen da izan duten lehen hizkuntzaren arabera eta euskaraz ikasi duten urte kopuruaren arabera.

Lehen hizkuntza euskara bakarrik eduki zutenen artean %14 errazago aritzen dira euskaraz; %51 berdin aritzen da euskaraz zein gaztelaniaz; %31

hobeto gaztelaniaz; eta %4 elebidun hartzaileak dira. Horrek esan nahi du gutxienez %65ek erraztasun bera duela euskaraz zein gaztelaniaz aritzeko. Dena dela, ehunekoak behera egiten du (%35) lehen hizkuntza euskara eta gaztelania eduki zutenen artean; eta are gehiago jaisten da (%16), lehen hizkuntza gaztelania eduki zutenen artean.



Euskaraz 16 urtez edo gehiagoz ikasi zutenen artean (goi-mailako eta erdi goi-mailako ikasketak), %8 errazago aritzen da euskaraz gaztelaniaz baino, eta %50ek berdin dihardute bi hizkuntzetatik edozeinetan; beraz, horien hiru bostenak (%58) berdin-berdin aritu daitezke euskaraz edo gaztelaniaz. Hala ere, euskaraz ikasten 14 urtez (BBB-LH2) edo 11 urtez (OHO) aritu zirenen taldeetan, behera egiten du proportzioak, bostenera, %21 eta %23 baita, hurrenez hurren.

Aldeak, baina, txikiagoak dira sexuaren, adinaren edo ikasketa-mailaren arabera aztertuz gero. Hala bada, honakoak dira euskaraz gaztelaniaz bezala edo hobeto aritzen direnen ehunekoak:

- Emakumezkoen artean zertxobait handiagoa (%33), gizonezkoen artean baino (%25);
- adinaren arabera ez dago ia aldaketarik, gazteen artean, %31, erdikoetan, %26, eta zaharrenei dagokienez, %30;
- ikasketa mailaren arabera ikusten da alderik handiena: goi-mailako ikasketak dituztenen %34, erdi goi-mailako ikasketak egin dituztenen %27, eta BBB-LH2 edo OHO-LH1 ikasi dutenen %20.

Azkenik, adierazi behar dugu euskal elebidun edo elebidun orekatu gehiago dagoela seme-alabak dituztenen artean (%34), gainerakoen artean baino (%27).

ELEBITASUN – MOTA				
% Horizontalak	Euskal elebiduna	Elebidun orekatua	Erdal elebiduna	Elebidun hartzailea
GUZTIRA:	3	25	59	12
SEXUA:				
Gizonezkoa	3	22	60	15
Emakumezkoa	4	29	58	10
ADINA:				
36tik 41ra	4	26	54	16
31tik 35era	3	23	62	12
26tik 30era	4	27	60	10
IKASKETAK:				
OHO-LH1	3	16	51	30
BBB-LH2	3	17	60	19
Erdi goi-mailakoak	4	23	65	8
Goi-mailakoak	4	30	58	9
LEHEN HIZKUNTZA:				
Gaztelania	1	15	68	16
Euskara eta gaztelania	2	33	57	8
Euskara	14	51	31	4
IKASKETAK EUSKARAZ:				
11 urte edo gutxiago (OHO)	3	20	55	22
14 urte (BBB-LH2)	2	19	68	11
16 urte edo gehiago (Erdi/Goi-mailakoak)	8	50	41	1

1.3 **Euskarari buruzko iritziak**


Hizkuntza-nortasuna

Hizkuntza-nortasunari dagokionez, Olabide Ikastolako ikasle ohiek honakoak uste dute:

- %31k uste du euskalduna besterik ez dela, eta %9k euskaldunago erdaldun baino;
- %26k uste du euskaldun bezain erdalduna dela;
- %23k dio erdaldunagoa dela euskaldun baino, eta
- %11k dio erdaldun hutsa dela.

Elebitasun-motaren arabera, emaitzak aldatu egiten dira: beren burua euskalduntzat edo erdaldun baino euskaldunagoztat dute euskaraz errazago aritzen diren ia guztiek (%93), elebidun orekatuen ia bi herenek (%60), gaztelaniaz errazago dihardutenen herenek (%33) eta elebidun hartzaileen seirenek (%17). Azken horietatik bi herenek (%62) erdalduntzat edo euskaldun baino erdaldunagoztat dute beren burua.

Logikoa denez, euskaldun nortasuna handiagoa da lehen hizkuntza euskara, soilik edo gaztelaniarekin batera, eduki zutenen artean, %98 eta %52 hurrenez hurren. Gaztelania eduki zutenen artean %28k erakusten dute eus-



kaldun nortasuna. Gauza bera gertatzen da euskaraz ikasi zuten urte-kopuruaren arabera aztertuz gero: 16 urtez edo luzeago aritu zirenen artean, %55 dira, eta 16 urtez baino gutxiagoz aritu zirenen artean, berriz, %36. Sexuaren, adinaren eta ikasketa mailaren arabera, ordea, ez da ia alderik.


Euskararekiko interesa

Gehien-gehienek (%83) diote interes nahikoa edo oso handia dutela euskararekiko, %13 zertxobait interesatuta dago, eta %4k ez du inolako interesik.

Atal honetan ere elebitasun-motaren arabera gertatzen dira alderik handienak: interesa erakusten dutenak, nahikoa edo handia, %100 dira euskaraz hobeto aritzen direnen artean, eta elebidun orekatu ia gehienek (%95) ere hori erantzun zuten; baita gaztelaniaz hobeto aritzen direnen gehienek ere (%83). Elebidun hartzaileetan, ordea, %52k erakusten du interesa, handia edo nahikoa, euskararekiko.

Lehen hizkuntza zein eduki zuten edo euskaraz zenbat urtez aritu ziren aldagaiak ere aldea dakarte interesari dagokionez, baina alde txikiagoak dira; are txikiagoak dira sexuaren, adinaren edo ikasketa-mailaren arabekoak.

Euskararekiko interes handiagoa erakutsi dute seme-alabak dituztenak (%90), seme-alabarik ez dutenak baino (%80). Azken horietatik ia guztiek, baina, adierazi dute seme-alabarik edukiz gero euskara transmitituko lieketela; batzuek, euskara bakarrik transmitituko liekete (%62), eta beste ba-



tzuek gaztelaniarekin batera (%32); horrez gain, D (%82) edo B (%17) eredu-
etan matrikulatuko lituzketela ere adierazi zuten. Beraz, ondorengoei euska-
ra transmitituko ez lieketenak %5a –gehienak elebidun hartzaileak– baino ez
dira, eta %1ek matrikulatuko luke A ereduari.


Errealitatea ona da, baina transmisioari dagokionez, ez da horren pozga-
rria; aurrerago ikusiko dugunez, seme-alabak dituztenen %23k euskara hu-
tsa transmititu diete haurrei, %53k bi hizkuntzak, eta %24k gaztelania bes-
terik ez. Seme-alaba horien aita edo ama izango denak euskaraz jakiteak
berebiziko garrantzia du atal honetan.

Diskriminazioa euskaraz ezin hitz egin izateagatik

Inkestari erantzun dioten %10ek esan zuten beren burua diskriminatuta
sentitu dutela askotan, ezin izan dutelako euskaraz hitz egin; %24ri inoiz edo
behin gertatu zaio hori, eta %66ek dio ez zaiola horrelakorik gertatu.

Atal honetan ere elebitasun-motaren arabera antzematen dira alderik
handienak: euskaraz gaztelaniaz baino hobeto aritzen direnen arteko %30ek
diote askotan sentitu dutela diskriminazio hori; elebidun orekatuen %21ek
eta gaztelaniaz hobeto dihardutenen %6k ere gauza bera erantzun zuten.


Ez da ia alderik lehen hizkuntzaren eta euskaraz ikasitako urteen arabe-
ra, eta beste horrenbeste gertatzen da sexuaren eta adinaren arabera begi-
ratuta ere: ez dago alderik.




2.1 Euskararen erabilera etxean

Olabide Ikastolako ikasle ohi gutxik erabiltzen du euskara etxean, izan ere, etxe guztietatik soilik %19tan erabiltzen dute euskara gaztelania beste edo gehiago: etxeetatik %9tan euskara hutsez aritzen dira; %3tan gaztelaniaz baino gehiago eta %7tan gaztelania beste erabiltzen dute euskara. Etxe guztietatik laurdenetan (%23) gaztelania erabiltzen dute euskara baino gehiago, eta erdietan baino gehiagotan (%59) inoiz ez dute euskaraz jarduten.

Edonola ere, logikoa denez eta grafikoan ikus daitekeenez, euskaraz hitz egin ahal izateko, ezinbestekoa da etxean bizi diren guztiek, edo, behintzat, gehienek, jakin dezaten. Bestalde, hizkuntza-gaitasun erlatiboak (elebitasun-mota) ere zerikusi handia du.





EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN

% Horizontalak	Inoiz ere ez	Gaztelaniaz gehiago	Bietan berdin	Euskaraz gehiago	Beti euskaraz
GUZTIRA:	59	23	7	3	9
EUSKALDUNEN PROPORTZIOA:					
Inor ere ez	96	4	0	0	0
Erdiak baino gutxiago	88	12	0	0	0
Erdiak	79	19	1	0	0
Erdiak baino gehiago	45	45	8	1	1
Denak	20	20	17	10	34
ELEBITASUN - MOTA:					
Elebidun hartzailea	94	6	0	0	0
Erdal elebiduna	64	25	6	2	3
Elebidun orekatua	35	30	10	6	19
Euskal elebiduna	15	8	15	4	58

Emaitzen azalpena eman aurretik, komeni da argitzea, lehenengo eta behin, azterlanetik kanpo geratu direla bakarrik bizi direnak, %11, eta, bigarrenik, euskaldunen proportzioa etxe bakoitzean (eta segidan aztertuko ditugun gainerako esparruetan) zein den kalkulaterakoan, ez ditugula euskalduntzat hartu elebidun hartzaileak.

Aztertutako etxeetan, agian, espero genezakeen baino euskaldun gehiago bizi dira, izan ere, etxeetatik laurdenetan (%26), denek dakite euskaraz,

bostenetan (%21) erdiek baino gehiagok, herenetan (%36), erdiek dakite euskaraz, eta, azkenik %10etan erdiek baino gutxiagok eta %7tan inork ez daki.

Etxeko inork ez badaki, jakina, ez da batere erabiltzen, eta erdiek edo erdiek baino gutxiagok baldin badakite ere, hizkuntzaren erabilera urria da, %12 eta %20, hurrenez hurren; erdiek baino gehiagok dakitenean, berriz, %45etan zerbait hitz egiten dute euskaraz, eta soilik %10etan hitz egiten dute gaztelaniaz beste.

Etxeko guztiak euskaraz badakiten kasuei dagokienez, esan liteke erabilera handia dela, baina ez dela orokorra, izan ere etxeetatik %60tan gaztelaniaz beste edo gehiago hitz egiten dute euskaraz (%34tan beti, %10etan gaztelaniaz baino gehiago, eta %17tan berdin), %20tan gaztelaniaz baino gutxiago hitz egiten dute euskaraz, eta %20tan inoiz ez.

Euskararen erabilera ez da erabatekoa etxeko kide guztiak euskaldunak izanda ere; horrek dakar, etxeko euskaldunen proportzioaren eta erabileraren arteko korrelazioa altua izanda ere (0,59), ez izatea Euskal Herrikoa bestekoa (0,76). Hori gertatzen da guztiak euskara jakin arren, askok eta askok errazago jarduten dutelako gaztelaniaz (inkestari erantzun diotenen %50), eta, beste alde batetik, hainbat etxetan ez delako euskaraz hitz egiteko ohitura-rik (beti hitz egin dutelako gaztelaniaz).

Beraz, hizkuntza-gaitasun erlatiboak (elebitasun-mota) garrantzi handia dauka; gaitasun hori ere, erabilerarekiko korrelazioari dagokionez, Euskal Herri osoan baino txikiagoa da, 0,47 eta 0,72, hurrenez hurren, izan ere, euskal elebidunen ehunekoa oso txikia da (%3).

Elebidun hartzaileen etxeetan ez dute euskaraz ia hitz egiten; euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago hitz egiten dute, batetik, gaztelaniaz hobeto aritzen direnen %11k, bestetik, elebidun orekatuen %35ek, eta, azkenik, euskaraz hobeto jarduten dutenen %77k.

Euskararen etxeko erabileraren eta gainerako aldagaien arteko erlazioa txikiagoa da; horrez gain, gehienetan, beste erlazio baten ondorioa da, alegia, gainerako aldagai horiek etxeko euskaldun-kopuruarekin eta hizkuntza-gaitasun erlatiboarekin duten erlazioaren ondorioa. Hala bada, lehen hizkuntzak erlazio handia dauka hizkuntza-gaitasun erlatiboarekin, eta gurasoekin bizi direnen kasuan, etxeko euskaldunen proportzioarekin ere bai.

Hori argitu ondoren, erabilerarekin erlazio handien duten aldagaiak dira lehen hizkuntza eta euskararekiko interesa, 0,30eko korrelazioa dutenak, eta adina, 0,25 korrelazioa duena; erabilera handiagoa izan ohi da euskara lehen

hizkuntza izan denean, euskararekiko interesa handiagoa denean eta adinez zaharragoak direnean. Horiek horrela, honakoak dira euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago hitz egiten den etxeen ehunekoak:

- inkestari erantzun dionaren lehen hizkuntza gaztelania izan bada, %12; bi hizkuntzak izan baziren, %16, eta euskara izan bada, %41,
- euskararekiko interesik ez badu, bat ere ez, %0; zerbait interesatzen bazaio, %6; nahiko interes agertzen badu, %10; eta interes handia badauka, %29 (euskararekiko interesak eragin handiagoa dauka erabilerari dagokionez, Euskal Herri osoan baino, txikiagoa baita euskaldunen proportzioak eta hizkuntza-gaitasunaren proportzioak eduki lezaketen eragina),
- gazteenen arteko %10; tartekoen %20 eta zaharreneen %28 (adinari dagokionez, ondorengo lerroetan aztertuko dugunez, zerikusi handia dauka etxean nor bizi den).

Etxeko erabilera dela eta, ez dira adierazgarriak euskaraz ikasi zuten urte-kopurua eta egindako ikasketak, korrelazioak 0,11 eta 0,06 baitira, hurrenez hurren. Hala ere, erabilera handiagoa da maila ertaineko edo goi-mailako ikasketak egin dituztenen artean, eta, bereziki, ikasketa horiek euskaraz (osorik edo zati bat) egin zituztenen artean.

Azkenik, aipatu behar dugu ez dela ia alderik, euskararen etxeko erabilerari dagokionez, sexuaren arabera.

Ondoren azaltzen da euskararen erabilerari buruzko taula, aldagai horien guztien arabera; irakurketa erraztearren, multzo bakarrera ekarri ditugu aukera minoritarioak: beti euskaraz, gehiago euskaraz eta bi hizkuntzetan berdin, adibidez, talde bakarrean daude: berdin edo gehiago euskaraz, gaztelaniaz baino.


EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN			
% Horizontalak	Inoiz ere ez	Gaztelaniaz gehiago	Euskaraz berdin edo gehiago
GUZTIRA:	59	23	19
SEXUA:			
Gizonezkoa	59	24	17
Emakumezkoa	58	22	20
ADINA:			
36tik 41era	38	34	28
31tik 35era	57	23	20
26tik 30era	75	15	10
IKASKETAK:			
OHO-LH1	58	33	9
BBB-LH2	64	21	15
Erdi goi-mailakoak	55	20	26
Goi-mailakoak	57	24	18
LEHEN HIZKUNTZA:			
Gaztelania	67	21	12
Euskara eta gaztelania	54	31	16
Euskara	34	24	41
IKASKETAK EUSKARAZ:			
11 urtez edo gutxiagoz (OHO)	63	22	15
14 urtez (BBB-LH2)	62	22	16
16 urtez edo gehiagorik (Erdi/Goi-mailakoak)	44	26	31
EUSKARAREKIKO INTERESA:			
Oso handia	45	26	29
Nahikoa handia	65	25	10
Zertxobait	84	9	6
Ezer ez	90	10	0

Lehenago ere adierazi dugu etxean euskara erabiltzeak eta inkestari erantzun diotenen adinak zerikusia dutela etxean bizi direnekin, izan ere, lehendabiziko kapituluan ikusi dugunez, gazteen erdiak baino gehiago (%56) gurasoekin bizi dira, eta zaharrenen erdiak baino zertxobait gehiago (%59), berriz, bikotekidearekin eta seme-alabekin. Eta, beste alde batetik, hurrengo atalean ikusiko dugunez, inkestari erantzun dioten gehienek gurasoek ez dakite euskaraz, baina seme-alaba gehienek bai, eta gehienek euskaraz jarduten dute beren seme-alabekin.

Horren ondorioz, seme-alabak eduki edo ez, aldatu egiten da euskararen erabilera etxean. Seme-alabak egon badauden etxeetatik %31tan ez da sekula ere euskaraz hitz egiten, baina %39tan hitz egiten dute, nahiz eta gaztelaniaz baino gutxiago hitz egin; etxeetatik %31tan gaztelaniaz beste edo gehiago hitz egiten dute euskaraz. Hala ere, seme-alabarik ez den etxeei da-

gokienez, hiru laurdenetan (%75), inoiz ez dute euskaraz hitz egiten, inkestari erantzun diotenak gurasoekin, bikotekidearekin, neba-arrebekin edo beste inorekin bizi izanda ere.

Horrek esan nahi du, beraz, inkestari erantzun diotenek euskara erabiltzen dutela, oro har, seme-alabekin bizi badira, baina gutxi erabiltzen dutela aurreko belaunaldikoekin (gurasoak) edo belaunaldiko berekoekin (bikotekidea, neba-arrebak edo beste inor) bizi badira.




2.2 Euskararen erabilera familiakideekin

Atal honetan aztertuko dugu Olabideko ikasle ohien euskararen erabilera bikotekidearekin, seme-alabekin, aitarekin, amarekin eta neba-arrebekin. Erdiak baino gehiago ezkondata daude, edo bikotekidearekin bizi dira; herenek seme-alabak dituzte; gehienek, neba-arrebak; eta ia guztiek daukate bizirik aita eta ama. Seme-alabei dagokienez, ez da bidezkoa ume txiki-txikiak kontuan hartzea, ez baitute hitz egiten; beraz, 2 urtetik aurrerakoak hartuko ditugu aintzat, Eustatek baliatzen duen irizpideari jarraituta; hori dela eta, seme-alabak (2 urtekoak edo zaharragoak) dituztenen proportzioa bostenera etorriko da.

Grafikoan ikusten denez, alde handiak daude erabileraren alorrean. Alde batetik, oso zabalduta dago seme-alabekin erabiltzea, eta, beste alde bate-

tik, nahikoa urria da familiako gainerako kideekiko erabilera. Baina kontuan hartu behar da bostenek baino ez dauzkatela seme-alabak.



Seme-alabak dituztenen artean, gehienek (%80) gaztelaniaz beste edo gehiago hitz egiten dute euskaraz haurrekin (%54k beti, %8k gaztelaniaz baino gehiago, %18k berdin euskaraz eta gaztelaniaz), %13k gutxiago euskaraz, eta, azkenik, %7k inoiz ez du euskaraz hitz egiten seme-alabekin.

Aldiz, bikotekidearekin %16 aritzen dira euskara hutsez edo gaztelaniaz baino gehiago; amarekin %18; aitarekin %17; eta %25 neba-arrebekin. Azken datu hori harrigarria da, izan ere, hurrengo taulan ikusten denez, gehienek neba-arreba euskaldunak dauzkate.

EUSKARAREN ERABILERA FAMILIAKO KIDE DESBERDINEKIN

% Horizontalak	Inoiz ere ez	Gaztelaniaz gehiago	Bietan berdin	Euskaraz gehiago	Beti euskaraz
Bikotekidearekin	70	14	5	2	8
Seme-alabekin	7	13	18	8	54
Amarekin	77	5	5	2	11
Aitarekin	77	5	5	2	10
Anai-arrebekin	58	16	13	3	9


Etxeko euskaldun-kopuruak zeukan garrantzirik handiena euskararen erabilaren kasuan; are garrantzitsuagoa da familiako kideak euskaldunak izatea edo ez izatea; herenak ere ez dira bikotekidea (%28), ama (%31) edo aita

(%28) euskaldunak dauzkatenak. Beste muturrean dago seme-alaben eta neba-arreben kontua, izan ere gehien-gehienek dauzkate seme-alaba (%81) edo neba-arreba (%90) euskaldunak. Seme-alabei dagokienez, praktikan, ehuneko handiagoa da, transmisioa aztertzerakoan ikusiko dugunez, bi urteko seme-alabak dituztenen artean badirelako zenbait, adinez txikiak direla eta, oso gutxi hitz egiten dutenak, nahiz eta gurasoek euskaraz aritzen zaizkien.

FAMILIAKO KIDE DESBERDINEN EUSKARAREN EZAGUTZA			
% Horizontalak	Ezer ez (Inork ere ez)	Zertxobait (Erdiek)	Ongi (Denek)
Bikotekideak	48	20	32
Amak	60	9	31
Aitak	62	10	28
Seme-alabek	12	7	81
Anai-arrebek	4	6	90

Euskaraz dakiten familiako kideen erabilera aztertzerakoan, hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, ia erdiek (%45), gaztelaniaz beste edo gehiago hitz egiten dute euskaraz bikotekidearekin, erdiek baino gehiagok amarekin (%57) eta aitarekin (%64), eta ia gehienek (%86), seme-alabekin.

Erabilerarik txikiena, eta alde handiz, neba-arrebekikoa da. Inkestari erantzun diotenen %28k hitz egiten dute, euskaraz, neba-arrebekin, gaztelaniaz beste edo gehiago, erdiek baino gehiagok (%55), ez dute inoiz euskaraz hitz egiten neba-arrebekin, nahiz eta horiek ere euskaldunak izan.



Neba-arreben artean euskaraz horren “gutxi” hitz egitearen arrazoietakoa bat da gehien-gehienek gaztelania eduki zutela lehen hizkuntza; horrek berekin dakar gaztelaniaz errazago aritzea, eta txiki-txikitatik hasi zirenez gaztelaniaz hitz egiten, zail samar egiten zaie ohitura hori aldatzea.

2 urtetik gorako seme-alaba bat baino gehiago dutenei galdetu genien ea zein hizkuntza erabiltzen zuten seme-alabek euren artean. Horietatik bi herenek (%61) erantzun zuten euskaraz aritzen direla gaztelaniaz beste edo gehiago (%39k beti, %9k gaztelaniaz baino gehiago, eta %13k berdin), %14k esan zuten gaztelaniaz baino gutxiago egiten dutela, eta %26k adierazi zuten ez dutela inoiz euskaraz hitz egiten.

Beraz, seme-alaben arteko erabilerari dagokionez, hobetu daiteke, baina gurasoek beren neba-arrebeekin dutena bi halako da.

Etxeko erabileraren kasuan bezalaxe, erabileran eragin handien duten faktoreak dira, lehenik, euskaraz jakitea, eta horren ondoren, inkestari erantzun dionaren hizkuntza gaitasun erlatiboa (elebitasun-tipologia).

Horren ostean, batez ere gurasoekiko eta neba-arrebekiko harremanari dagokionez, lehen hizkuntza zein den, eta euskararekiko interesa. Eta neurri txikiagoan, euskaraz ikasi zuten urte-kopurua, ikasketa-maila eta adina. Sexuaren arabera ez da ia alderik.

Hurrengo taulak erakusten du familiako gainerako kideekin, hizkuntza-gaitasun erlatiboaren, sexuaren, adinaren. arabera, euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago hitz egiten dutenen ehunekoa. Taula horretan bada datu bat azpimarragarria, alegia, elebidun hartzailen ia erdiek (%44) euskaraz hitz egiten dute seme-alabekin gaztelaniaz beste edo gehiago.


EUSKARAZ GAZTELANIAZ BESTE EDO GEHIAGO (BIKOTEAREKIN,.) ERABILTZEN DENEAN					
% Bertikalak	Bikotekide-arekin	Seme-alabekin	Amarekin	Aitarekin	Neba-arrekin
GUZTIRA:	16	80	18	17	25
ELEBITASUN - MOTA:					
Elebidun hartzailea	0	44	2	2	2
Erdal elebiduna	8	77	9	10	18
Elebidun orekatua	31	98	37	34	49
Euskal elebiduna	63	*	81	74	81
SEXUA:					
Gizonezkoa	17	82	19	17	26
Emakumezkoa	15	79	17	17	25
ADINA:					
36tik 41era	15	80	19	22	33
31tik 35era	18	78	20	18	24
26tik 30era	9	*	15	13	23
IKASKETAK:					
OHO-LH1	4	71	12	9	30
BBB-LH2	11	79	19	19	24
Erdi goi-mailakoak	15	77	18	15	27
Goi-mailakoak	19	84	18	18	26
LEHEN HIZKUNTZA:					
Gaztelania	12	77	2	3	14
Euskara eta gaztelania	17	76	18	18	29
Euskara	25	91	73	67	65
IKASKETAK EUSKARAZ:					
11 urtez edo gutxiagoz (OHO)	11	71	14	15	22
14 urtez (BBB-LH2)	14	82	18	17	23
16 urtez edo gehiagoz (Erdi/Goi-mailakoak)	29	93	24	25	38
EUSKARAREKIKO INTERESA:					
Oso handia	25	95	25	25	38
Nahikoa handia	7	72	12	13	19
Zertxobait	6	39	12	9	8
Ezer ere ez	0	0	0	4	0


* Talde horretan kide gutxi daude → datuak ez dira egonkorak

3.1 Euskararen erabilera lagunartean

Olabide lkastolako ikasle ohiek gutxienetan erabiltzen dute euskara lagun-
nekiko harremanetan. Hala ere, etxean baino gehiago erabiltzen dute, izan
ere, laurdenek (%26) gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dute (%4k beti,
%5ek gaztelania baino gehiago, eta %17k berdin bietan), beste laurden ba-
tek (%26), gaztelania baino gutxiago erabiltzen du, eta erdiek (%48), inoiz ez
dute jarduten euskaraz lagunartean.

Aurrekoan bezala, hemen ere lagunen arteko euskaldun-proporzioak
eta hizkuntza-gaitasun erlatiboak (elebitasun-tipologia) eragiten dute gehien
erabileran; bi aldagaietako korrelazioa berdina da, 0,45.





EUSKARAREN ERABILERA LAGUNEKIN

% Horizontalak	Inoiz ere ez	Gaztelaniaz gehiago	Bietan berdin	Euskaraz gehiago	Beti euskaraz
GUZTIRA:	48	26	17	5	4
EUSKALDUNEN PROPORZIOA:					
Inor ere ez	98	2	0	0	0
Erdiak baino gutxiago	65	29	6	0	0
Erdiak	32	33	30	5	0
Erdiak baino gehiago	25	29	26	14	6
Denak	33	25	21	9	13
ELEBITASUN - MOTA:					
Elebidun hartzailea	81	18	1	0	0
Erdal elebiduna	51	32	12	3	1
Elebidun orekatua	29	18	32	10	11
Euskal elebiduna	15	7	41	22	15

Lagunen artean, proportzioari dagokionez, etxean baino euskaldun gutxiago dauzkate. Lautik batek (%25) lagun guztiak edo ia guztiak dauzka euskaldunak; zazpitik batek (%14), lagun erdiak baino gehiago; bostenek (%21), lagun erdiak dituzte euskaldunak; erdiek, hiru lagunetatik bat dute euskaldun; %30ek lagun erdiak baino gutxiago, eta, azkenik, hamarretik batek (%10) ez du lagun euskaldunik.

Lagun artean zenbat eta euskaldun gehiago izan, orduan eta erabilera handiagoa; adin hauetan, lagunekiko harremanak banakakoak dira gehienetan, eta ez taldekoak. Hori dela eta, ez da beharrezkoa lagun guztiak edo gehienak euskaldun izatea eurekin euskaraz jardun ahal izateko. Inork ez badaki, jakina, ez da batere erabiltzen, baina euskaraz erdiek baino gutxiagok jakin arren, gaztelaniaz beste edo gehiago hitz egiten dute euskaraz %6k; lagun erdiek baldin badakite, erabilera %35era igotzen da; erdiek baino gehiagok dakitenetan, erabilera %46koa da; eta, gauza bitxia, lagun guztiek edo ia guztiek euskaraz dakiten kasuetan, erabilera %43koa baino ez da.

Lagun guztiek euskaraz jakin arren, erabilerak gora ez egiteak dakar 0,45ekoa izatea erabileraren eta euskaldun proportzioaren arteko korrelazioa; etxeko erabilera (0,59), eta, Euskal Herri osoan, lagunekiko erabileran ematen dena (0,67) baino askoz txikiagoa. Hori gertatzen da askok eta askok errazago hitz egiten dutelako gaztelaniaz, eta lagun artean euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez daukatelako.

Hizkuntza-gaitasun erlatiboaren eta lagunekiko erabileraren arteko korrelazioa 0,47 da, etxeko erabileraren antzekoa, baina Euskal Herrian lagunekin erabiltzen dena baino askoz ere txikiagoa (0,75); eta hori gertatzen da euskaraz gaztelaniaz baino hobeto egiten dutenen portzentajea %3 besterik ez delako.

Elebidun hartzaileen artean, ia inork (%1) ez du lagunekin euskaraz hitz egiten gaztelaniaz beste edo gehiago; gaztelaniaz hobeto aritzen direnen arteko %16k egiten du hori; elebidun orekatuen %53k; eta, azkenik, euskaraz hobeto aritzen direnen arteko %78k.

Euskararen erabilerak, lagunekikoak, eta gainerako aldagaiak erlazio txikiagoa dute elkarren artean, eta, oro har, eragina du aldagai horiek lagunarteko euskaldun proportzioarekin eta hizkuntza-gaitasun erlatiboarekin daukaten erlazioak. Korrelaziorik handiena euskararekiko interesari dagokiona da, 0,32, eta, ondoren, euskaraz ikasi zuten urte-kopuruari dagokiona, 0,26. Txikiagoak dira lehen hizkuntzarekin zerikusia duena, 0,17, eta ikasketa-mailarekin zerikusia duena, 0,15. Eta ez da ia alderik, erabilerari dagokionez, adinaren eta sexuaren aldagaiak kontuan hartuz gero; hala ere, zertxobait txikiagoa da gizonen artean eta tarteko adinekoen artean (30-35).

Etxeko erabilerarekin alderatuz gero, indarra galtzen du lehen hizkuntzaren eta adinaren eraginak, eta, aldiz, garrantzi handiagoa daukate euskaraz ikasitako urte-kopuruak eta ikasketa mailak ere.


EUSKARAREN ERABILERA LAGUNEKIN			
% Horizontalak	Inoiz ere ez	Gaztelaniaz gehiago	Euskaraz berdin edo gehiago
GUZTIRA:	48	26	26
SEXUA:			
Gizonezkoa	50	28	22
Emakumezkoa	46	24	30
ADINA:			
36tik 41ra	49	23	28
31tik 35era	52	25	23
26tik 30era	43	29	27
IKASKETAK:			
OHO-LH1	65	24	11
BBB-LH2	58	22	19
Erdi goi-mailakoak	46	27	28
Goi-mailakoak	42	28	31
LEHEN HIZKUNTZA:			
Gaztelania	52	27	20
Euskara eta gaztelania	43	26	30
Euskara	37	23	41
IKASKETAK EUSKARAZ:			
11 urtez edo gutxiagoz (OHO)	63	22	15
14 urtez (BBB-LH2)	49	27	24
16 urtez edo gehiagoz (Erdi/Goi-mailakoak)	24	32	44
EUSKARAREKIKO INTERESA:			
Oso handia	36	24	41
Nahikoa handia	51	32	17
Zertxobait	76	18	6
Ezer ez	77	19	4

3.2 *Euskararen erabilera lankideekin*


Euskararen erabilera lankideekin lagunekin egiten denaren antzekoa da. Laurdenek (%27) gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dute (%10ek, beti; %6k, gaztelania baino gehiago; eta %11k, berdin), bostetik batek (%18), gaztelania baino gutxiago erabili ohi du euskara, eta, azkenik, erdiek baino gehiagok (%55) inoiz ez dute euskaraz jarduten lankideekin.

Erabileraren esparruan, erabakigarria da lankide euskaldunen proportzioa; korrelazio handia du arlo horrek, 0,80, hizkuntza-gaitasun erlatiboaren korrelazioa baino askoz ere handiagoa, 0,43koa baita.

EUSKARAREN ERABILERA LANKIDEEKIN EUSKALDUNEN PROPERTZIOAREN ARABERA



EUSKARAREN ERABILERA LANKIDEEKIN ELEBITASUN - MOTAREN ARABERA



EUSKARAREN ERABILERA LANKIDEEKIN					
% Horizontalak	Inoiz ere ez	Gaztelaniaz gehiago	Bietan berdin	Euskaraz gehiago	Beti euskaraz
GUZTIRA:	55	18	11	6	10
EUSKALDUNEN PROPORZIOA:					
Inor ere ez	96	4	0	0	0
Erdiak baino gutxiago	60	32	8	0	0
Erdiak	31	33	29	8	0
Erdiak baino gehiago	11	13	27	34	15
Denak	6	9	15	14	56
ELEBITASUN - MOTA:					
Elebidun hartzailea	92	6	1	1	0
Erdal elebiduna	60	21	11	4	5
Elebidun orekatua	32	17	16	9	26
Euskal elebiduna	21	17	4	38	21

Lankideen artean askoz ere euskaldun gutxiago dago, proportzioan, etxean edo lagunaren artean baino. Seitik baten (%16) lankide guztiak edo ia guztiak dira euskaldunak; hamarretik batek (%9) lankide erdiak baino gehiago ditu euskaldunak; zortzitik baten (%13) lankide erdiak dira euskaldunak; herenak (%30), erdiak baino gutxiago; eta beste herenak (%31) ez du lankide euskaldunik. Beraz, lankideekin euskaraz hitz egiteak lagunekin beste eta etxean baino gehiago, balio handiagoa du, ustez; hori gerta liteke gutxiengo handi batek irakaskuntzan edo administrazioan lan egiten duelako.

Erabileraren eta euskaldun-proportzioaren arteko korrespondentzia ia lineala da, izan ere inork ez badaki euskaraz, ez dago inolako erabilerarik, baina gaztelaniaz beste edo gehiago hitz egiten dute euskaraz (%8) erdiek baino gutxiagok dakitenean, %37k erdiek dakitenean, %76k erdiek baino gehiagok dakitenean, eta %85ek denek dakitenean (azken kasu horretan, bestalde, gehienek euskaraz hitz egiten dute beti).

Erabileraren eta lankide euskaldunen proportzioaren arteko korrelazioa 0,80koa da, etxeko erabileraren (0,59), lagunartekoaren (0,45) eta, Euskal Herri osoan, lankideekiko erabileraren (0,74) korrelazioak baino askoz ere handiagoa; hori gertatzen da erabilera hazten delako euskaldunen proportzioa hazten den ia neurri berean.

Hizkuntza-gaitasun erlatiboaren eta lankideekiko erabileraren arteko korrelazioa 0,45 da, etxekoaren eta lagunartekoaren antzekoa, baina Euskal Herrian lagunartekoa baino txikiagoa, 0,60 baita. Hori gertatzen da %3k baino ez duelako hobeto egiten euskaraz gaztelaniaz baino.

Elebidun hartzaileen artean, ez dago ia inor (%2) lankideekin gaztelaniaz beste edo gehiago euskaraz hitz egiten duenik; gaztelaniaz hobeto jarduten dutenen artean, %20 dira; elebidun orekatuen %51k hitz egiten dute euska-

raz gaztelaniaz beste edo gehiago; eta euskaraz hobeto dakitenean artean, %63k egiten dute hori.

Euskararen erabilerak, lankideekin, eta gainerako aldagaiek erlazio txikiagoa dute elkarren artean, eta, aurreko atalean bezala, eragina du aldagai horiek lankide euskaldunen proportzioarekin eta hizkuntza-gaitasun erlatiboarekin daukaten erlazioak. Korrelaziorik handiena euskararekiko interesari dagokiona da, 0,31, eta, ondoren, euskaraz ikasi zuten urte-kopuruari dagokiona, 0,30. Txikiagoak dira ikasketa-mailarekin zerikusia duena, 0,16, eta lehen hizkuntzarekin zerikusia duena, 0,11. Azkenik, emakumeek erabiltzen dute gizonezkoek baino zertxobait gehiago, eta ez da ia alderik, erabilerari dagokionez, adinaren aldagaia kontuan hartuz gero; hala ere, zertxobait txikiagoa da tarteko adinekoen artean (30-35).

Lagunarteko erabilerarekin alderatuz gero, korrelazioa antzekoa da, eta etxeko erabilerari dagokionez, indarra galtzen du lehen hizkuntzaren eta adinaren eraginak, eta, aldiz, garrantzi handiagoa daukate euskaraz ikasitako urte-kopuruak eta ikasketa-mailak ere.


EUSKARAREN ERABILERA LANKIDEekin			
% Horizontalak	Inoiz ere ez	Gaztelaniaz gehiago	Euskaraz berdin edo gehiago
GUZTIRA:	55	18	27
SEXUA:			
Gizonezkoa	60	18	22
Emakumezkoa	50	18	33
ADINA:			
36tik 41ra	51	17	32
31tik 35era	60	17	23
26tik 30era	53	20	27
IKASKETAK:			
OHO-LH1	75	9	16
BBB-LH2	70	14	14
Erdi goi-mailakoak	40	29	31
Goi-mailakoak	53	16	32
LEHEN HIZKUNTZA:			
Gaztelania	61	14	24
Euskara eta gaztelania	45	29	25
Euskara	44	21	36
IKASKETAK EUSKARAZ:			
11 urtez edo gutxiagoz (OHO)	72	13	16
14 urtez (BBB-LH2)	56	19	25
16 urtez edo gehiagoz (Erdi/Goi-mailakoak)	31	22	48
EUSKARAREKIKO INTERESA:			
Oso handia	42	21	37
Nahikoa handia	61	19	20
Zertxobait	80	7	12
Ezer ez	91	5	5

3.3 Euskararen erabilera beste zenbait esparrutan

Azkenik, euskarari beste esparru formalago batzuetan ematen zaion erabilera aztertuko dugu. Esparru horiek dira, besteak beste, auzoetako dendak, banketxeetako edo aurrezki kutxetako bulegoak, anbulategia edo udalzerbitzuak.

Horietan guztietan, erabilera txikia da, eta erabilerarik handiena udalzerbitzuetakoa da, lagunartean eta lankideekiko harremanetan ematen den erabileraren antzekoa baita. Lautik batek (%23) hitz egiten dute euskaraz udalzerbitzuetakoekin gaztelaniaz beste edo gehiago; bostetik batek (%20) gaztelaniaz baino gutxiago; eta erdiek baino zertxobait gehiagok (%56) inoiz ez dute euskaraz hitz egiten esparru horretan.

Gainerako esparruetan euskararen erabilera oso urria da oraindik. Banketxeetako edo aurrezki kutxetako lankideekin euskaraz hitz egiten dute, gaztelaniaz beste edo gehiago, %15ek; anbulategikoekin, %59k; eta auzoko dendarekin, %5ek. Gehienek ez dute sekula ere euskara erabiltzen hiru



EUSKARAREN ERABILERA BESTE ESPARRUETAN

% Horizontalak	Inoiz ere ez	Gaztelaniaz gehiago	Bietan berdin	Euskaraz gehiago	Beti euskaraz
Udal zerbitzuetan	56	20	12	5	6
Banku edo aurrezki kutxan	66	18	9	3	3
Anbulategian	77	14	6	2	1
Auzoko dendetan	77	17	4	1	0

esparru horietan: esaterako, bi herenek (%66) ez dute inoiz euskaraz hitz egi-
ten banketxean edo aurrezki kutxan, eta lautik hiruk (%77), anbulategian eta
auzoko dendetan.

Lau esparru horietan euskara horren gutxi erabiltzeak zerikusi zuzena du
esparru horietako langile gehienek euskaraz ez jakitearekin. Inkestari eran-
tzun diotenen ez badakite zein den esparru horietako euskaldunen propor-
tzioa, horrek esan nahi du, gure ustez, proportzio txikia dela. Horren arabe-
ra, euskaldunen proportzioa erditik beherakoa den establezimenduen
ehunekoak honakoak dira: auzoko dendek %91, anbulategien %74, banke-
txe edo aurrezki kutxen %67 eta udal-zerbitzuen %44.

EUSKALDUNEN PROPORZIOA ESPARRU DESBERDINETAN						
% Horizontalak	Ez daki	Inork ere ez	Erdiek baino gutxiagok	Erdiek	Erdiek baino gehiagok	Denek
Udal zerbitzuetan	12	9	23	28	21	7
Banku edo aurrezki kutxan	13	19	35	22	9	2
Anbulategian	25	20	29	17	9	0
Auzoko dendetan	10	39	42	8	2	0

Gainerako aldagaiei dagokienez, aurrez aztertu ditugun esparruetan be-
zalaxe, hizkuntza-gaitasun erlatiboak du garrantzi handiena erabileran. Ho-
rren ostean, euskararekiko interesa eta euskaraz ikasitako urte-kopurua dau-
de. Neurri txikiagoan, lehen hizkuntza eta ikasketa-maila. Eta, azkenik, ez da
ia alderik adinaren arabera, baina, bai, ordea, sexuaren arabera, izan ere,
emakumeek gehiago erabiltzen dute euskara lau esparruetan.

EUSKARAZ GAZTELANIAZ BESTE EDO GEHIAGO (UDAL ZERBITZUETAN,) ERABILTZEN DENEAN				
% Bertikalak	Udal zerbitzuetan	Banku edo aurrezki kutxan	Anbulategian	Auzokodendetan
GUZTIRA:	23	15	9	5
ELEBITASUN - MOTA:				
Elebidun hartzailea	1	2	0	0
Erdal elebiduna	17	10	4	2
Elebidun orekatua	46	33	24	15
Euskal elebiduna	42	30	16	15
SEXUA:				
Gizonezkoa	18	13	7	5
Emakumezkoa	29	19	12	6
ADINA:				
36tik 41ra	22	11	8	5
31tik 35era	25	17	11	5
26tik 30era	23	17	8	7
IKASKETAK:				
OHO-LH1	17	3	0	0
BBB-LH2	19	14	8	5
Erdi goi-mailakoak	26	17	5	4
Goi-mailakoak	27	16	12	8
LEHEN HIZKUNTZA:				
Gaztelania	21	14	8	5
Euskara eta gaztelania	22	14	7	7
Euskara	32	22	17	8
IKASKETAK EUSKARAZ:				
11 urtez edo gutxiagoz (OHO)	17	12	5	3
14 urtez (BBB-LH2)	22	13	8	4
16 urtez edo gehiagoz (Erdi/Goi-mailakoak)	37	29	20	12
EUSKARAREKIKO INTERESA:				
Oso handia	36	24	15	8
Nahikoa handia	15	9	5	4
Zertxobait	7	5	5	4
Ezer ez	0	4	0	0

Olabide Ikastolako ikasle ohien euskararen erabileraren ikuspegia ahalik eta osoena izan dadin, euskararen erabileraren tipologia egin dugu, lau esparrutan egiten den erabilera aintzat hartuta. Honakoak dira lau esparruok: etxea, lagunartea, lankideak eta beste zenbait esparru formalago.


Bakarrik bizi direnen kasuari dagokionez, %11, kontsideratu dugu gura-soekiko eta neba-arrebekiko erabilera dela etxeko erabilera, eta lan-jarduerarik ez dutenentzat, %8, beste hiru esparruen araberrako tipologia eratu dugu.

Lau erabileren artean egin litezkeen konbinaketak asko direnez, hiru talde handitan banatu ditugu:

1. Erdiek (%47) gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dute euskara lau esparruetatik batean; talde hau, halaber, beste lau azpitaldetan dago banatuta:
 - %2k lau esparruetan erabiltzen dute,
 - %6k hiru esparrutan darabilte euskara: lagunekin, lankideekin, eta oro har, hirugarrenik, etxean,
 - %14k bi esparrutan erabili ohi dute, eta bi horiek aukeratu behar dira etxetik, lagunartetik eta lankideen esparrutik,
 - %25ek esparru bakarrean jardun ohi du euskaraz; esparru formaletan ez beste edozeinetan.
2. Herenek (%32) gaztelania baino gutxiago erabiltzen dute, esparru bakar baten edo bitan.
3. Bostetik batek (%22), ez du sekula erabiltzen.

Logikoa denez, erlazio handia dute tipologia-motek eta kontsideratutako esparruetako euskaldunen proportzioek. Esaterako, muturreko adibideak jartzearen, honako hau ikusten dugu:

- Lau esparruetan euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago aritzen direnen taldekoei dagokienez (%2), euskaldunak dira etxeko guztiak, lan-



kide gehienak, bai eta lagun gehienak ere; eta neurri txikiagoan, beste esparruetako langileak.

- Euskara inoiz erabiltzen ez duten taldekoek, berriz, erdaldunak dituzte lankide gehienak, lagun gehienak eta beste esparruetako langileak; eta proportzio txikiagoan, etxeko kideak.

Bestalde, bada harremanik tipologia-taldeen eta aztertutako gainerako aldagaien artean. Hizkuntza-gaitasun erlatiboak garrantzi handia dauka, baina horrekin batera, euskararekiko interesak, euskaraz ikasitako urteek eta ikasketak ere bai. Zertxobait gutxiago lehen hizkuntzak. Eta bada nolabaiteko harremana adinaren eta sexuaren aldagaiekin ere.

Hurrengo orrialdeko taulan jaso dugu tipologia taldeen osaketa, aldagai horien arabera. Taula horretan ikusten denez, muturreko taldeek oso profil argiak dauzkate. Adibidez:

- Lau esparruetan euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago hitz egiten (%2) dutenen taldeko guztiek hitz egiten dute gaztelaniaz bezain erraz edo errazago euskaraz, eta gehienek interes handia erakusten dute euskararekiko, eta euskaraz egin dituzte goi-mailako ikasketak. Horrez gain, talde horretan emakume gehiago dago gizonezko baino, eta gutxiak gazteenak dira.
- Ondorengo taldekoek, alegia, euskaraz hiru esparrutan aritzen direnek (%6), aurrekoen antzeko profila dute, baina ez da horren argia. Gehie-

nek interes handia erakutsi dute euskararekiko, eta lautik hiruk gaztelaniaz bezain erraz edo errazago hitz egiten dute euskaraz eta goi-mailako ikasketak egin dituzte. Talde honetan ere gehiago dira emakumeak gizonezkoak baino, eta edadean gora daudenak gazteak baino.

- Talde horretatik aurrera profilak gero eta nahasiago ageri dira, harik eta azken bi taldeetan alderantzizkatu arte.

Hala bada, azken taldekoek, alegia, euskaraz inoiz hitz egiten ez dutenek (%22), errazago hitz egiten dute gaztelaniaz, eta gehienek gaztelania izan zuten lehen hizkuntza. Euskararekiko interes gutxiago agertzen dute, izan ere %17k baino ez zuen interes oso handia erakutsi; ikasketa-maila ere baxuagoa da, eta urte gutxiagoz aritu ziren euskaraz ikasten. Talde horretan gizonezko gehiago dago emakume baino.

EUSKARAREN ERABILERAREN TIPOLOGIA						
% Bertikalak	Lau esparru	Hiru esparru	Bi esparru	Esparru bat	Gaztelaniaz gehiago	Inoiz ere ez
ELEBITASUN - MOTA:						
Elebidun hartzailea	0	0	0	2	10	39
Erdal elebiduna	0	22	32	61	79	60
Elebidun orekatua	67	60	58	36	11	1
Euskal elebiduna	33	18	10	2	0	0
SEXUA:						
Gizonezkoa	42	31	46	50	54	58
Emakumezkoa	58	69	54	50	46	42
ADINA:						
36tik 41ra	42	40	28	20	23	24
31tik 35era	42	29	38	43	42	39
26tik 30era	17	31	34	37	34	38
IKASKETAK:						
OHO-LH1	0	4	1	3	5	9
BBB-LH2	8	4	22	21	25	33
Erdi goi-mailakoak	8	20	25	21	16	15
Goi-mailakoak	83	71	53	55	54	42
LEHEN HIZKUNTZA:						
Gaztelania	58	49	42	59	68	84
Euskara eta gaztelania	8	16	20	17	20	10
Euskara	33	36	38	23	12	6
IKASKETAK EUSKARAZ:						
11 urtez edo gutxiagoz (OHO)	8	7	25	20	27	43
14 urtez (BBB-LH2)	8	42	54	58	56	53
16 urtez edo gehiagoz (Erdi/Goi-mailakoak)	83	51	22	21	17	4
EUSKARAREKIKO INTERESA:						
Oso handia	83	84	75	57	42	17
Nahikoa handia	17	16	19	35	47	36
Zertxobait	0	0	7	7	9	36
Ezer ez	0	0	0	1	2	11

Gurasoen ezaugarriak

Herenak ere ez dira (%31) seme-alabak dituztenak, Olabide Ikastolako ikasle ohien artean. Hala ere, ez da zentzuzkoa ume txikiak azterlanean sar-tzea, oraindik ez baitute hitz egiten, eta, beraz, bi urte edo gehiago dituzten haurrak baino ez ditugu hartuko kontuan, Eustatek erabiltzen duen irizpide-arekin bat etortzearren. Hala ere, bi urteko haurren artean ere badira gutxi hitz egiten dutenak, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz ere.

Irizpide hori hartzeak dakar seme-alabak dituztenen proportzioak behe-
ra egitea, bostenera (%21). Ehuneko hori, baina, aldatu egiten da sexuaren arabera, gizonezkoen kasuan %18koa baita, eta emakumeen kasuan, berriz, %25ekoa; eta are gehiago aldatzen da adina kontuan hartzen badugu, izan ere 26-30 urte bitarteko %1ek baititu seme-alabak, 31-35 urte bitarteko %20k eta 36-41 urte bitarteko %52k. Beraz, seme-alabak dituzten gehienak 35 urtetik gorakoak dira.

Erdiek baino gehiagok (%54) 2 urteko edo gehiagoko seme-alaba baka-
rra daukate; herenek baino gehiagok (%38) bi daukate, eta %8k baino ez dauka hiru seme-alaba. Erdiek (%49), sei urtetik beherako haurrak daukate (2-5 urte); gehien-gehienek (%83), 11 urtetik beherakoak (2-10 urte); eta %17k baino ez daukate 10 urtetik gorako umerik.

Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, bikotekideak euskaldunak dira (%30), bikotekide bat euskalduna da eta besteak zerbait hitz egiten du (%18), biko-
tekide bat euskalduna da eta besteak ez du ezer hitz egiten (%42), eta biko-
tekideak ez dira euskaldunak, nahiz eta batek zer edo zer hitz egiten duen (%11).

Euskararen familia-transmisioa seme-alabei


Euskararen familia-transmisioa aztertzerakoan, ikusi dugu ia erdiek seme-alaba bat baino gehiago daukatela; beraz, banaka aztertu beharko li-rateke seme-alabak, hau da, gurasoen fitxategitik seme-alaben fitxategira pasatu beharko litzateke, eta fitxategi horretan bikotea agertu beharko litz-

teke seme-alaba bakoitzari dagokion fitxan; eta gurasoek transmititzen duten hizkuntza aipatu beharrean, seme-alabek jasotzen dutena aipatu behar ko litzateke. Hori dela eta, konplexu samarra izan da emaitzen azterketa, eta, bereziki horien azalpena.

Beste alde batetik, seme-alaba bat baino gehiago dauzkaten bikote guztiek hizkuntza bera transmititzen diete beren haurrei, eta hezkuntza eredu berean matrikulatzen dituzte; beraz, azterketa erraztu egin daiteke, eta are gehiago azterketaren azalpena. Horretarako, nahikoa da seme-alaba bakar-raren, zaharrenaren, transmisioa azterzea; hartara, jakingo dugu zein hizkuntza transmititzen duten gurasoek.

Hori argitu ondoren, aztertuko dugu zein hizkuntza transmititzen dioten gurasoek euren seme edo alaba zaharrenari, eta, badakigu, seme-alaba bat baino gehiago duten kasuetan, jokabide bera dutela hurrengoekin ere.

Ondorengo diagraman adierazi dugu, eskematikoki, Olabide Ikastolako ikasle ohiek seme/alaba zaharrenari egin dioten euskara-transmisioa; hala-ber, haur hezkuntzan zein eredutan matrikulatu duten ere jaso dugu, ikuspegi orokorra edukitzearren. Gero aztertuko ditugu urratsak zehatzago.




Beraz, gurasoen hiru laurdenek transmititzen diete euskara beren seme-alabei; horietatik erdiek, baina, gaztelaniarekin batera. Beste laurdenek ez diete euskara transmititzen etxean, eta, hala ere, gehienek B eta D ereduetan matrikulatzen dituzte. Hori horrela izanik, galera oso txikia dela pentsatu behar dugu, eta kontuan hartu behar dugu kasu gehienetan (%60) gurasoetako bat baino ez dela euskaldun, edo bietatik bat ere ez (%11), nahiz eta azken kasu horretan, bietatik batek badakien zertxobait.

Euskararen familia-transmisioak, seme-alabei egiten zaienak, harreman estua du gurasoen hizkuntza-gaitasunarekin.

- Guraso biek badakite euskaraz, %69k euskara baino ez diote transmititzen seme edo alaba zaharrenari, %20k gaztelaniarekin batera, eta %10ek gaztelania bakarrik.
- Gurasoetako batek euskaraz ondo jakin, baina besteak zertxobait besterik ez dakienen tipologiari dagokionez, hiru herenek (%79) bi hizkuntzak transmititzen dizkiete, %14 euskara soilik, eta %7k gaztelania.
- Gurasoetako batek badaki euskaraz, baina besteak ez. Halakoetan, guraso horien hiru laurdunek (%75) bi hizkuntzak transmititzen dizkiete seme-alabei, eta gainerakoak (%25), gaztelania besterik ez.
- Gurasoek ez badakite euskaraz, %89k gaztelania soilik transmititzen diete seme-alabei, eta %11k “dio” bi hizkuntzak transmititzen dituztela (halakoetan, bikotekideek badakite euskaraz zertxobait hitz egiten).

Bada datu harrigarriak, hala ere. Bikotea osatzen duten bi lagunak euskaldun diren %10ek ez diete euskara transmititzen beren seme-alabei. Dena dela, baliteke datua ez izatea oso egonkorra, izan ere, ikerketan ez baitago seme-alabarik duen bikote askorik (50). Edonola ere, bikote horien profila oso adierazgarria da: bost bikote dira, eta bikotekideak errazago aritzen dira gaztelaniaz; horrez gain, ez dute euskararekiko interes handirik erakutsi. Hala eta guztiz ere, bost bikote horietatik hiruk D ereduan matrikulatu dituzte beren seme-alabak eta euskaldunak dira; baina beste biek B eta A ereduan matrikulatu dituzte, eta zertxobait besterik ez dute hitz egiten.



SEME/ALABA NAGUSIAREN 1. HIZKUNTZA GURASOEN GAITASUNAREN ARABERA					
% Bertikalak	GUZTIRA	Biek dakite euskara	Batek bai, besteak zerbait	Batek bai, besteak ezer ez	Inork ere ez (batek zerbait)
Gaztelania	24	10	7	25	89
Euskara eta gaztelania	53	20	79	75	11
Euskara	23	69	14	0	0

Bikotekidea euskalduna izateak ala ez erabat baldintzatzen du elkarrizketatutakoaren aldagai soziolinguistikoek (lehen hizkuntza, euskaraz ikasitako urte-kopurua, hizkuntza-gaitasun erlatiboa) euskararen familia-transmisioan izan dezaketen eragina; hori dela eta, ez dugu zifrarik emango; baina bai esan behar dugu lehen hizkuntza euskara eduki zutenek, euskaraz urte gehiagoz ikasi dutenek eta euskaraz hobeto hitz egiten dutenek gehiago transmititzen dutela, eta gehienetan soil-soilik, euskara.

Antzeko zerbait gertatzen da, nahiz eta neurri txikiagoan, aldagai sozio-demografikoen alorrean: ez da ia alderik sexuaren arabera; adina hartuz gero kontuan, geroz eta gehiago transmititzen dira bi hizkuntzak, euskara bakarrik transmititzearen kaltetan; eta ikasketa-mailaren arabera, zenbat eta maila handiagoa izan, zertxobait gehiago transmititzen dute euskara.

Hizkuntza-eredua eta seme-alaben hizkuntza-gaitasuna

Guraso gehienek (%79) Haur Hezkuntzako D ereduan matrikulatu dute beren seme/alaba nagusia, %15ek B ereduan, eta, azkenik, %6k A ereduan. Jakina, ehuneko horietan ez ditugu jaso 2 urteko haurrak, oraindik eskolatu gabe baitaude.

Lehen Hezkuntzan ere antzekoak dira ehunekoak: %81ek D ereduan, %11k B ereduan eta %8k A ereduan. Talde horretan ez daude 6 urtetik beherakoak (%51), eta horregatik daude alde txikiak portzentajeetan.

Bestalde, joera nagusia da gero eta haur gutxiago matrikulatzea A ereduan; beraz, ia ez dago A ereduan matrikulatutako 3-5 urteko haurrik.

Hori baino interesgarriagoa da, ordea, aztertzea gurasoek, transmititu dieten hizkuntzaren arabera, zein hizkuntza-eredutan matrikulatu dituzten beren seme-alabak, eta, bide batez, seme-alaben hizkuntza-gaitasuna ere aztertzea.

Seme/alaba zaharrenari euskara besterik transmititu ez dioten (%23) gurasoetatik ia gehienek, %97k, D ereduan matrikulatu dute, eta %3k baino ez dute A ereduan matrikulatu.

Lehen seme/alaba guztiak (%100) dira euskaldun, eta bi herenek (%68) errazago jarduten dute euskaraz gaztelaniaz baino; gainerakoek (%32), berdin hitz egiten dute bi hizkuntzetan.

Seme/alaba zaharrenari euskara eta gaztelania transmititu dizkioten gurasoen (%53) artean, gehienek (%86) D ereduan matrikulatu dute Haur Hezkuntzan; %12k B ereduan; eta %3k A ereduan.

Lehen seme/alaba ia guztiak (%93) dira euskaldun, eta gainerakoek (%7) zertxobait hitz egiten dute euskaraz, baina 2 urte besterik ez dutelako; beraz, pentsa liteke urte baten buruan euskaraz jakingo dutela, eta, beraz, esan liteke guzti-guztiak (%100) direla euskaldun.

Haur horietatik %13 errazago aritzen da euskaraz gaztelaniaz baino, %49 hizkuntza bietan berdin, eta %38 hobeto gaztelaniaz.

Azkenik, seme/alaba zaharrenari gaztelania, besterik ez, transmititu dioten gurasoak ditugu, %24. Horietatik gehienek D (%47) edo B (%37) ereduetan matrikulatu dute beren seme/alaba, eta %16k baino ez du matrikulatu A ereduan.


Lehen seme/alaba gehienak (%60) euskaldunak dira; %30ek zerbait hitz egiten du euskaraz; %10ek ez du batere jarduten euskaraz. Bi hizkuntzetan berdin-berdin aritzen dira %28, eta %73k errazago hitz egiten du gaztelaniaz.

Euskaldunak ez direnen artean (%40), lautik hiru (%75) 6 urtetik beherakoak dira, eta gainerakoak (%25) 10 urtetik gorakoak. Azken horiek, ziurrenik, ez dute inoiz euskara ikasiko, baina txikienek bai, eta epe laburrean, gainera; izan ere, %27 D ereduan daude matrikulatuta, %64 B ereduan, eta %9 baino ez dago matrikulaturik A ereduan. Hortaz, euskara bi herenek baino ikasiko ez balute ere, ehunekoa 60tik 80 arte igoko litzateke, eta, horren ondorioz, galerak %20ri baino ez lioke eragingo.

Laburbilduz, familia-transmisioaren bidez ikasten dutenen kopuruari eskolan ikasten dutenen kopurua gehitzen badiogu, %4,8koa baino ez litzateke izango euskararen galera; hau da, gaztelania besterik transmititu ez zaien (%24) bostetik batek galduko luke. Edonola ere, ez dago galeraz hitz egiterik, kasu gehienetan gurasoetako bakarra baita euskalduna (%60) edo gura-

soetatik bat ere ez (%11). Bestalde, seme-alaben gaztelania-mailarekin alderatuz gero, euskara-maila altua dute, %23k hobeto hitz egiten baitute euskaraz, %39k berdin bi hizkuntzetan, eta %38k hobeto gaztelaniaz.

Eta, orain, aurreko lerroetan azaldutako diagrama osatuko dugu:



laburpena eta ondorioak

Olabide Ikastolako 26-41 urte bitarteko ikasle ohiek, eta, oro har, Vitoria-Gasteizko adin horretako euskaldunek honako ezaugarri hauek dituzte: gehienek gaztelania izan zuten lehen hizkuntza, beren ingurunea, nagusiki, erdalduna da, eta gutxienetan erabili ohi dute euskara. Horren ondorioz, gehienek errazago hitz egiten dute gaztelaniaz euskaraz baino, eta gutxiengo handi batek (%12) euskaraz jarduteko gaitasunaren zati bat galdu du, eta, gaur egun, elebidun hartzaileak dira.

Beste alde batetik, aurreikustekoa da talde horretako elebidun hartzaileak gero eta gehiago izatea, urteak pasa ahala, izan ere, adinez zenbat eta zaharragoak izan, ehunekoak gora egiten du. Edonola ere, zertxobait badaukitenez, eta guraso direnek euskaraz hitz egiten dutenez, gehiago edo gutxiago, beren seme-alabekin, elebidun hartzaile horietako batzuk berreskuratu egin dezakete galdutako euskara.

Belaunaldi berriei dagokienez, txikiagoa izan beharko litzateke euskara galtzen dutenen ehunekoak, ingurunea, bai familiarena eta bai gizartearena ere, ez baita egungoa bezain erdalduna izango. Lan honetan aztertutako belaunaldia da euskararen berreskurapenean esku hartzen duen lehena, eta, hala izanik, baldintza txarrenetatik abiatu dena.

Gehienek ingurune nagusiki erdalduna dute aztertutako lau esparruetan (familia, lagunartea, lankideak eta bestelako esparru formalagoak), eta euskaraz baino hobeto jarduten dute gaztelaniaz; bi faktore horiek erabakigarriak dira erabileraren arloan. Hori gertatzen da bai Vitoria-Gasteizen eta bai Euskal Herri osoan ere. Faktore horiexengatik, beraz, txikia behar du izan, nahitaez, erabilerak.

Hori horrela izanik ere, erdiek gaztelania beste edo gehiago erabili ohi dute euskara aztertutako lau esparruetan: %25ek esparru bakar batean; %14k, bitan; %6k, hirutan; eta %2k, txalogarria benetan, lau esparruetan. Herenek zertxobait darabilte euskara esparru horietako batean edo gehiagotan. Eta bostetik batek ez du sekula ere erabiltzen. Erabiltzen ez dutenez, baliteke, denbora joan ahala, euskara galera partzial gehiago izatea azken bi talde horietan, eta, bereziki, azkenekoan.

Lau esparruetako euskararen erabilera banan-banan aztertuz gero, ikusi dugu lagunartean eta lankideekin erabiltzen dutela gehien; lautik batek gaztelaniaz beste edo gehiago hitz egiten du euskaraz esparru horietan. Ondoren etxea dago, bostetik batek hitz egiten baitu euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago. Askoz ere gutxiago erabiltzen dute esparru formalagoetan, udaleko langileekin izan ezik. Lau esparruak hartuta, gutxienez erdiek ez dute sekula euskaraz hitz egiten.

Sareko euskaldunen proportzioari dagokionez, lankideekin erabiltzen da gehien, eta ia ezinezkoa da gehiago erabiltzea; hori gertatzen da, ziurrenik, askok eta askok administrazioan eta, bereziki, irakaskuntzan, dihardutelako. Aldiz, etxeko eta lagunarteko erabilera hobetu liteke, baina eremu horretan beste faktore batzuk ere badira, besteak beste, hizkuntza-gaitasun erlatiboa edo gaztelaniaz hitz egiteko ohitura.

Familiako gainerako kideekiko erabilerari buruz, txikia da bikotekidearen, aitaren eta amaren kasuan, izan ere seitik batek hitz egiten du euskaraz horiekin gaztelaniaz beste edo gehiago; neba-arrebekin gehixeago hitz egiten dute, lautik batek hitz egiten baitu gaztelaniaz beste edo gehiago; seme-alabei (eta seme-alabak euren artean) dagokienez, ia guztiek, elebidun hartzai-leak barne, jarduten dute euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago.

Horrek esan nahi du gutxi samar hitz egiten dutela euskaraz bai aurreko eta bai beren belaunaldikoekin ere, eta gehienak euskaraz aritzen direla beren seme-alabekin, nahiz eta gutxienak izan seme-alabak dituztenak.

Azpirarratzekoa da zein gutxi jarduten duten euskaraz neba-arrebekin, nahiz eta senide gehienak euskaldunak izan; hori gertatzen da gehienek gaztelania eduki zutelako lehen hizkuntza eta harremana gaztelaniaz eduki dutelako beti.

Azterlanean ikusten denez, emaitzarik onena seme-alabekiko transmisioan dago. Gurasoen laurdenek euskara besterik ez dute transmititzen; erdiek, euskara eta gaztelania; gainerakoek, laurdenek, gaztelania besterik ez. Azken horietako gehienek, baina, D eta B erduetan matrikulatzen dituzte beren seme-alabak. Hori dela eta, ez dago ia euskararen galera errealik, %5 baino txikiagoa baita galera hori. Edonola ere, ez dago galeraz hitz egiterik, kasu gehienetan gurasoetako bakarra baita euskalduna (%60), edo gurasoetatik bat ere ez (%11), nahiz eta azken horien artean, bietatik batek zertxobait badakien.

Seme-alaba gehienek euskaraz hitz egiten dute etxean, gurasoekin eta neba-arrebekin; hortaz, etxean euskaraz hitz egiteko ohitura hartu dute, eta gaztelaniaz bezain erraz edo errazago aritzen dira, oraingoz, behintzat.

Azken batez, Olabide Ikastolako ikasle ohien erdiek euskaraz hitz egiten dute iritzitako lau esparruetatik, gutxienez, batean, baina ingurunea nagusiki erdalduna dutenez, eta gehienak errazago aritzen direnez euren lehen hizkuntzan, hau da, gaztelaniaz, beste erdiek gutxi erabiltzen dute, edo batere ez; hori dela eta, %12k galdu egin dute umetan ikasitako euskararen zati bat.

Horrek argi eta garbi erakusten du zenbait egoera jakin gertatuz gero, Vitoria-Gasteizen, eta, oro har, 1. eremu soziolinguistikoan gertatzen direnak, hezkuntza-sistemaren bidez eta eskolako erabileraren bidez ez ezik, eskola esparrutik haratago ere indartu egin behar dela erabilera, eta, horretarako, bermatu egin behar da zerbitzuak eta produktuak izango direla.

Hala ere, azpimarratu egin behar dugu belaunaldi berrietan goitik behe-ra ari dela aldatzen egoera; belaunaldi berrien familia ingurunea euskalduna da, gehienetan, hobeto dakite euskaraz, eta gurasoena baino ingurune aproposagoa izango dute. Etorkizunari begira, erronka da belaunaldi horietakoak haziz doazen neurrian eutsi diezaiotela gaur egungo etxeko erabilerari eta beren hurbileko esparruetara, batez ere lagunartera, zabal dezatela.